



ARRASATEKO UDALA

Arrasateko Udalaren eta Debagoieneko AEK euskaltegia-Euskaraz Kooperatiba Elkartearen arteko hitzarmena, Arrasateko helduen euskalduntze-alfabetatzean elkarlanean aritzeko.

Arrasaten, bi mila eta hamaseiko uztailaren hogeitabederatzian

BILERAN DIRA

Alde batetik, Mertxe Mugika Balanzategi Debagoieneko AEK euskaltegia-Euskaraz Kooperatiba Elkartearen lehendakaria, adinez nagusia; ENA zk. 78.869.768E. Elkartearen IFK: F-95222816.

Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, haren izenean diharduena, horretarako behar bezala ahalmena dago eta.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta hauxe

AZALTZEN DUTE

Ugariak eta emankorrak dira Arrasate euskalduntzeko aspaldion hainbat entitatek egindako ahaleginak. Hala ere, oraindik ere nabarmenak dira euskaraz bizi ahal izateko eguneroko bizitzan etengabe izaten diren oztopoak.

Aspaldi zaharrean eman zituen Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Arrasate euskalduntzeko lehenengo urratsak. Helduen euskalduntze-alfabetatzeak duen garrantzia kontuan harturik, Arrasateko herriari ezinbestekoa zaio bitartekoak eskuratzea jarduera hori hobetuz eta hedatuz joan dadin, betiere, euskaraz bizitzeko, eskolaren bidez garatzen ari den lanaren osagarri.

Udalaren ekimenaz gain, ezinbestekoak dira herritarren ekimenak. Are gehiago, garrantzi handikoa da herritarrek Udalarekin elkarlanean jardutea. Horren isla eta adibide xume bat baino ez da aspaldiko urteotan Debagoieneko AEK euskaltegia (Erdu-AEK euskaltegiari segida eman dio) jorratutako bidea. Aurrerantzean ere hala izan dadin asmo tinkoa izanik, bi entitateok elkarlana sakondu eta areagotu nahi dute, Arrasateko helduen euskalduntze-alfabetatzea emankorragoa izan dadin.

Gaur egun, ordea, Euskaraz Kooperatiba Elkarteak hartu du bere gain Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) orain arte emandako euskarazko eskolen ardura, irakaskuntza lanari utzi dio eta. Hortaz, bada, Debagoieneko AEK euskaltegia kooperatiba horretako euskaltegia da. Hemendik aurrera, hitzarmen honi dagokionez, Debagoieneko AEK euskaltegia izena erabiliko dugu Debagoieneko AEK euskaltegia-Euskaraz Kooperatiba Elkartea izendatzeko.



Hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

Lehena. Debagoieneko AEK euskaltegia 2015-2016 ikasturtean antolatutako euskarazko eskolak diruz lagunduko ditu Arrasateko Udalak hitzarmen honen bidez. Hitzarmenetik kanpo daude Debagoieneko AEK euskaltegiak enpresentzat berariaz antolatzen dituen euskarazko eskolak.

Bigarrena. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean betebeharrak izango ditu Debagoieneko AEK euskaltegiak:

- Ikasturte hasieran programa, aurrekontua, ikastaroak, taldeak, matrikulazioa, eta abar aurkeztuko dizkio Arrasateko Udalarri.
- Ikasturte bukaeran, talde, jardura eta abarren balantzea jasotzen duen memoria aurkeztuko du, ikasturteko diru zuriketarekin batera.

Hirugarrena. Goian aitatutako ekintzak 2015-2016 ikasturtean antolatzeko, Arrasateko Udalak talde orduko 10,125 €-ko diru laguntza emango dio Debagoieneko AEK euskaltegiari. Hortaz, bada, 2015-2016 ikasturtean Debagoieneko AEK euskaltegiak 1.475,50 talde ordu (horietatik 262,50 autoikaskuntzako taldeei dagozkie) emango dituela kontuan izanik, 14.939 €-koa izango da Arrasateko Udalaren aurtengo diru laguntza.

Laugarrena. Hitzarmen hau sinatu eta berehala jasoko du diru laguntzaren %60a eta gainerakoa diru laguntza zuritutakoan. Bestalde, datorren urteko diru laguntza erabaki bitartean, aurrerakin hauek egingo dizkio Udalak: martxoan, aurtengo diru laguntzaren %30a; ekainean, aurtengo diru laguntzaren %30a, urteko diru laguntza erabaki gabe badago; eta gainerakoa, diru laguntza zurtzean.

Bosgarrena. Udalak babestutako ekintzen kartel iragarleetan eta, oro har, ekintza horien publizitatean, babeslearen izena jarriko du Debagoieneko AEK euskaltegiak.

Seigarrena. Bestalde, Arrasaten bizi diren herritarren euskalduntze-alfabetatzea sustatze aldera, Debagoieneko AEK euskaltegiak Arrasaten duen euskaltegiko ikasleen matrikulak ahalik eta txikienak izatea nahiko luke Arrasateko Udalak. Hori dela eta, 2016-2017 ikasturtean irizpide hauek erabiliko ditu Debagoieneko AEK euskaltegiak, Arrasateko ikasleei dagokienez:

- a) Matrikula egiteko unean langabezia egoeran dauden pertsonen, ikasleei eta jubilatuei %50eko murrizketa aplikatuko die matrikulan, betiere dagozkion agiriak aurkeztu ondoren. Ikastaroa 50 ordutik beherakoa bada ez da murrizketarik aplikatuko.
- b) Hitzarmen honen esparruaren barruan dauden Arrasateko gainerako ikasleei, berriz, 2016-2017 ikasturtean ikastorduko 0,30 €-ko murrizketa aplikatzea.
- c) Kasu guztietan, ikasleek Arrasaten erroldatuta daudela egiaztatu beharko dute.



ARRASATEKO UDALA

Zazpigarrena. Azaroan aurkeztu beharko ditu Debagoieneko AEK euskaltegiak 2015-2016 ikasturteko memoria eta 2016-2017 ikasturteko egitasmoa. Ikasturteko diru kontuak, berriz, 2017ko urtarrilaren 15a baino lehen, aurkeztu beharko ditu: 2015-2016 ikasturtean izandako gastu eta sarreraren balantzea, diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia dutenak, eta gastuen jatorrizko agiriak (fakturak), hain zuzen.

Bestalde, aurtengo urtea amaitu aurretik, 6. klausulak jasotzen dituen irizpideen aplikazioari buruzko datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu Debagoieneko AEK euskaltegiak: 6. ataleko laguntza jaso duten ikasleen zerrenda eta bakoitzaren egoera egiaztatzen duten agiriak, batetik, eta gainerako ikasleen zerrenda, bestetik. Kasu guztietan, ikasleek Arrasaten erroldatuta daudela egiaztatu beharko dute.

Zortzigarrena. Debagoieneko AEK euskaltegia da bere langileen arduraduna eta legearen aurrean erantzule bakarra, sor daitezkeen ondorio guztietarako. Hortaz, bada, hitzarmen honen izaera eta xedea direla medio, Debagoieneko AEK euskaltegiko irakasleek ezingo dute Arrasateko Udalaren plantilaren funtzionario izaera bereganatu, ez eta enplegatu finko, aldi baterako edo ordezkio izaerarik ere, ez Toki Administrazioako Funtzionarioei buruzko xedapenen arabera ez eta Lan Legearen arabera ere.

Bederatzigarrena. Udalak ez du inongo eskubiderik hartzen Debagoieneko AEK euskaltegiko barne gaietan sartzeko.

Hamargarrena. Debagoieneko AEK euskaltegiak ez du eskubiderik hitzarmena amaitzen denean inolako kalte ordainik eskatzeko.

Hamaikagarrena.- Hitzarmen honen klausulak ezin izango dira aldatu edo zabaldu, bi aldeak ados jarri barik.

Hamabigarrena.- Hitzarmen honetan jasotakoei begira, Oskar Elizburu izango da Debagoieneko AEK euskaltegiaren arduraduna.

Eta hala jasota geratzeko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute.

Mertxe Mugika

Euskaraz Kooperatiba Elkarteko lehendakaria

Maria Ubarretxena Cid

Arrasateko Udaleko alkate-udalburua



